



**Domina jantzita
itzuli dira
Kayak Surfeko
Europako
txapelketatik** / 11

**Iritzi-bilketari ekin
dio Andoaingo Udalak,
etorkizuneko N1 eta
A5 errepideen lotura
aintzat hartuta** / 8

**Gau Beltzaren
edizio berria
auzolanerako deia
egin dute
antolatzaileek** / 9

Xoxoka jaietan murgildu da

Astlehenean hasi ziren jaiak eta, ostegunetik aurrera, hitzordu gehiago egongo dira / 7



Parketarrak

Egunik onenak,
elkarrekin euskaraz jolasean



hezen

www.hezen.eus

ANDOAIN

Adinaren arabera antolatuko dira jolasak:

Zabu-Zibu (Helduekin) 3-5 urte: 17:15

Txirrintxon 6-9 urte: 18:15

ASTEARTETAN

Urriak 7, 14, 21 eta 28

Goikoplazan

ASTEAZKENETAN

Urriak 8, 15, 22, 29

Zumea plazan



1975ean jaiotakoen ospakizuna

Orain mende erdi jaiotako 124 lagun Zumea plazan elkartu zen, aurreko asteburuan. Andoni Gonzalez, Araitz Agirre eta Izaro Xanbu trikitilarien doinuak bidelagun zituztela, Goikoplazara abiatu ziren kalejiran. Goikoplazan taldeko argazkia atera eta Oianume jatetxean egin zuten bazkaria.



AIURRI



AIURRI

Manifestazio jendetsua Andoainen

Herriko BDZ-k deituta, elkarretaratze jendetsua egin zuten Goikoplazan, aurreko ostegunean, Gazako herritarrek sufritzen ari diren genozidioa eta Global Sumud Flotillak jasandako erasoa salatzeko. Bildutako herritarrek, elkarretaratzea amaitu eta segidan,

manifestazioan irten ziren. Agustin Leitza kalera abiatu eta Kale Nagusia eta Zumea kaleak batzen dituen Kamuturrerainoko ibilbidea egin zuten. Bertan, adierazpena irakurri zuten, azken egunotako gertakariak salatzeko.



AIURRI

Larramendi Bazkunaren ekimena

Aurrera darai "Andoingo Euskera, Bihotzetik kalera" ekinaldiak. "Urtetik urtera argiago ikusten dugu euskarak bizirik eta kalean behar duela izan, eta horretarako beharrezkoak direla ekintza kolektibo eta iraunkorrak", adierazi zuen Ane Jalon lehendakariak Kaimuturreko ekitaldian. Aidurü musika-taldeak girotu zuen, bestalde, ostegun iluntzea.



AIURRI



Jende ugari elkartu zen plazan igande arratsaldean. AIURRI



Aurrera Markekin elkarteak postua ipini zuen plazan. AIURRI



Txekor-jate solidarioa egin zuten Aurrera Markekin elkatean alde. AIURRI

Baserritarren eguna, Urnietan

Baserritarr Egunarekin amaitu ziren aurreko igandean Urnietako Sanmielak. Erromeria-giroko arratsaldea izan zen eta bertaratu zirenek inguruko sagardoaz eta bertan erretako txekorraz gozatu ahal izan zuten

Erredakzioa URNIETA

Jaietako bigarren asteburuan ezustekoa iritsi zen larunbat gauean. Janus Lester musikariak arratsaldean bertan iragarri zuen, osasun arazoak tarteko, ez zutela San Juan plazara hurbiltzerik izango. Ez zen ordezko ekitaldirik antolatatu eta larunbat gauean, beraz, ez zen musikarik izan. Eguraldia ere ez zen bate-re ona, larunbat arratsaldean hasita. Gainerakoan, bizikleta-festa, pilotarien partidak eta dantza tailerrak egin ziren urriaren 4an.

Igande eguerdian Batzokiak antolatutako ardo-dastaketak zaletu ugari erakarri zuen. Tartean, gainera, kargua utziko duela iragarri berri duen Eneko Goia Donostiako alkatea. Eguerdian jasotako dirua Urnietako odol emailen elkarteari bideratuko dutela iragarri dute antolatzaileek.

Arratsaldean arreta gun egi izan zen plazan: Iratzar taldearen erromeria, inguruko ekoizleen sagardo-dastaketa, bertan erretako txekorra, AEK euskaltegiak eta Aurrera Mar-

kekin elkarteak jarritako postu bana... Plazan dozenaka lagun elkartu zen baina ez aurreko urteetan elkartutako adina. Eta hori nabaritu zen pintxo eskuratzeko ilaran edota sagardogileek irekitako botila-kopuruan.

Aurtengoa aztertzeke eta datorren urtekoa lantzeko denbora izango da, hurrengo hilabeteetan. Baserritarrak gogoan, beraz, amaiera eman zioten jaiak. Biharamunean, landa-eremuan dagoen Xoxokak hartu zuten jaiaren lekukoa.



Xabier Altuna sagardogilea, Kontzejupean. AIURRI



Urnietako
udala



Erakustaldi ederra eman zuten pilotariek. AIURRI



Ardo-dastaketa, igande eguerdian, Kontzejupean. AIURRI



Pilotari taldea, Urnietako Udal pilotalekuan. AIURRI



Munduko ardoak dastatzeko aukera izan zen. AIURRI



Dantza urbanoan sakontzeko aukera izan zen larunbat arratsaldean. AIURRI



Aurreko urteetan bezala, postua jarri zuen AEK eustaltegiak. AIURRI



Dantzarako zaletuak trebatzeko aukera izan zuten aurreko asteburuan. AIURRI

Jaiei hasierako irainak plenora eramango dituzte

Sanmioletako lehen egunean entzundako irainak ez dira oharkabea igaro. Adierazpen instituzionala argitara emateko adostasunik egon ez denez, mozioa aurkeztu dute jeltzaleek eta sozialistek

Jon Ander Ubeda URNIETA

Adierazpenen eguna izan zen asteartekoa. Hiru izan ziren, hurrenez hurren, Gobernu-taldearen, EH Bilduren eta EAJ-PNVren eskutik. Gobernu-taldea osatzen duten EAJ-PNVk eta PSE-EEk sei puntuko mozioa onartzea proposatuko dute urriko udalaren osoko batzarraldian. Mozioan alkatearen, senideen eta alderdiaren aurkako irainak gaitzesten dituzte: "Adierazpen horiek ez dute lekuri errespetu eta elkarriketan oinarritzen den gizarte demokratiko batean". Babesa erakusten diote alkateari, irainek tokirik ez dutela erantsiz: "Komunitate anitz eta plural gisa batzen gai-

tuzten loturak partekatze, gozatzeko eta indartzeko uneak dira. Ideiak, iritziak edo sentimenduek defendatzeko, aniztasuna, pluraltasuna eta desberdinak pentsatzen duten errespetatu behar dira beti. Printzipio hori funtsezkoa da gure udalerrian bizikidetzak bermatzeko".

Jaietan, Urnietako Udalak programatu zuen kontzertuan entzundako irainen aurrean, erantzun irmoa merezi dutela uste dute: "Adierazpen iraingarriak, bai publikotik bai megafoniatik, ez dira onartuko ez gure jaietan, ez beste ezein espazio publikotan". Ekitaldien kontratazioei dagokionez (etorkizunari begira), "errespetua,

inklusioa eta duintasuna indartzeko klausula berriak" ezartze-ko asmoa jasotzen da mozio-proposamenean.

EH Bilduren adierazpena

Sanmioletan, EH Bilduk bere komunitatean zabalduko adierazpenean, Segurako alkatearen aurkako irainak salatu zituen. Astearte arratsaldean, Urnietako Udalak oharra igorri eta gutxira, EH Bilduk adierazpen ofiziala helarazi zion Aiurri astekariari. Lau puntu jasotzen zituen idatziak. Lehenengoan, alkateari elkartzasuna adierazten dio: "EH Bilduk ez ditu onartzen Urnietako alkate Jorge Seguradoren, haren emazte eta senitar-

tekoei, eta EAJ-PNV alderdi politikoari egindako irainak. Adierazpen horiek ez dute lekuri errespetu eta elkarriketan oinarritzen den gizarte demokratiko batean". Jarraian, babesa azaldu zioten Seguradoren eta bere familiari eta, Gobernu-taldeak egin bezala, pertsona guztiek jaia espazio segurutzat eta errespetuzkotzat sentitu behar dutela defendatu zuen. Azkenik, nabardura bat erantsi zuten, irainak eta Txosna Batzordearen aldarrikapenak ez nahasteko eskatuz: "Irain horiek ez dute zerikusirik txosnak babesteko aldarrikapenarekin. Norbanako batzuk egindako ekintza solteak dira. Ez da bidezkoa gertakari horiek erabiltzea gazte mugimendua kriminalizatzeko. Izan ere, txosnen aldeko borroka eredugarria izaten ari da".

EAJ-PNVren erantzuna

Arratsalde partean iritsi zen eguneko hirugarren adierazpena, Urnietako EAJ-PNVren eskutik. Funtsean, oposizioko alderdiarekiko "etsipena" agertu nahi zuen. Gobernu-taldearen asmoa adierazpen instituzionala argitaratzea zen, baina EH

Bilduren ezezkoa jasota, jeltzaleek eta sozialistek adierazpenean jaiotakoa mozio bidez aurkeztuko dute. Nabardura horretan dago jeltzaleen kritikaren oinarria: "Larritasun handiko ekintzen aurrean, EH Bilduk ez du pisuzko argudiorik gaineratu bere ezezkoa azaltzeko eta testu bateratu bat babesteko. Adierazpen instituzionalak ez zuen inor markatzea helburu, ezta liskarra sustatzea ere. Testuaren helburu bakarra gertakaria gaitzestea da, gizarte demokratikoan, askotarikoan eta errespetuzkoan lekuri ez duten gertaerak baitira".

EAJ-PNVk erantsi zuen ohar berean: "Urnietan ireki, inklusibo eta inposiziorik gabeko baten alde lanean jarraituko dugu. Batzen, entzuten eta eraikitzen duen politikan sinesten dugulako, eta jakin badakigulako bizikidetzak ez dela isiluneekin edo ihesbideekin defendatzen, ausardiarekin eta konpromisoarekin baizik".

Asteartean argitaratu ziren hiru oharra, bere osotasunean, irakurgai daude Aiurri.eus webgunean "Sanmielak 2025 | Urnietan" atalean.

Eskualdeko informazioa, orain ere, Aiurriren WhatsApp kanaletan

Batu zaitez!

Aiurri Aiztondo

Aiurri Andoain

Aiurri Urnietan



Beñat Telleria eta Julen Gabirondo, Xabat Olaizola eta Ugaitz Mugerzaren aurka aritu ziren. AIURRI

Jaietan murgilduta daude Xoxokan

Ostegunarekin eman diote jarraipena festari Xoxokan: Gau Sorpresak ireki du asteburuko hitzorduen txanda: apustua, bertso-afaria, magia-ikuskizuna, aizkora-erakustaldia, erromeria, Egape Dantza Taldearen emanaldia...

Erredakzioa URNIETA

Astelehenean, suziriak airean lehertuta eman zioten hasiera Xoxokako festei. Urtero bezala, herri-kirol erakustaldiak ireki zuen ospakizun-sortaren egitaraua: Beñat Telleria eta Julen Gabirondo, Xabat Olaizola eta Ugaitz Mugerzaren aurka aritu ziren, aizkora-lanetan, harri-jasotzean eta trontzan. Jarraian, ohitura zaharrek hartu zuten lekukoa: auzotarren bertso-bazkaria izan zen, Adarra jatetxean. Aurten, baina, aurpegi berriak izan ditu hitzorduak: Mikel Artolak eta Unai Gaztelumendik ipini zioten doinua eta neurria jaien lehen eguneko otorduari. Bi eguneko atsedena hartuta, ostegunarekin eutsiko diote berriro ere ospakizun-sortari, ziu-renik jaiek duten hitzordu berezienarekin: Gau Sorpresa. Lotsak galduta atera ohi dira auzoko gazteak jendaurrera, umorea ardatz, antzerkian aritzeko. Horrela, asteburuan ere ez da aspertzeko tarterik izango auzoan.



Mikel Artola eta Unai Gaztelumendi aritu ziren bertsoetan. AIURRI



Julen Gabirondo eta Beñat Telleria, lehen planoan, trontzan. AIURRI

XOXOKAKO JAIK

URRIAK 9

OSTEGUNA

20:30 Zahagi-ardoa Xoxokako eskolan.

22:30 Gau sorpresa.

URRIAK 10

OSTIRALA

18:00 Herri kirolak-Crossfit apustua.

20:30 Bertso-afaria, Xoxokako plazan, Andoni Rekondo eta Andoni Mujika (Anatx)-rekin.

01:00 Mallet taldea.

02:30 Gaupasa DJ Oattolo.

URRIAK 11

LARUNBATA

11:30 Hamaiketako Xoxokako eskolan.

11:30 Puzgarriak haurrentzat.

12:30 Aizkora erakustaldia, bikoteka: Igoi Pikabea Laiene Pikabea // Oier Mitxelena Malen Barrenetxea.

15:00 Mus azkarra Txapelketa Xoxokako eskolan. Izena emateko epea: 14:15-14:45.

16:00 Gaztelu puzgarriak haurrentzat.

17:00 Andoni magoa.

17:30 Toka eta karabina txapelketa eskola ondoan. Izena emateko epea, 16:45-17:15 artean. Jarraian txokolatea izango da haur guztientzat.

20:30 Betizu jatea, Xoxokako plazan.

00:30 Gaupasa Itzal taldearen eskutik.

03:30 DJ Gio.

URRIAK 12

IGANDEA

12:00 Egape Dantza Taldearen erakustaldia.

13:00 Meza Nagusia.

17:30 Herri kirol lehiaketa auzoko gazteen artean.

18:00 Sagardo dastaketa auzoko sagardogileekin.

18:15 Iruzta taldea.



Xoxokako jaien jarraipena Aiurri.eus webgunean

Egitaraua, argazki-bildumak, bideoak...

JAIK, BERTATIK BERTARA

www.aiurri.eus



Andoni Alvarez alkatea eta Gobernu-taldeko hainbat ordezkari, Bastero sarreran jarritako erakusketaren irekieran. AIURRI

Iritzi-bilketari ekin dio Andoaingo Udalak

Andoain.eus webgunean errepide-mapa berriari buruzko iritzia emateko aukera dago eta, datorren astean, Atarian eta Bastero Kulturgunean egokituko duten informazio-mahaian

Erredakzioa ANDOAIN

Urriaren 8tik 22ra bitarte, Andoaingo herritarrek iritzia emateko aukera izango dute andoaindarrek. Udal Gobernu-taldeak egin zuen iragarpena, astearte eguerdian, Bastero Kulturguneko sarrera nagusian egokitu duten erakusketan bertan. Saihesbidea eta Lazoa, bi alternatibak, alderatzeko lagungarri izan daitezkeen hamabi informazio-panel dira, guztira.

Iritzia emateko bi modu daude. Lehena, martxan dagoena, on line bidezkoa da. Urriaren 8tik 15era bitarte izango da aukera www.andoain.eus webgunean sartuta. "Zure iritzia beharrezkoa da" atalean klik eginez, Kuorum izeneko plataforman lau galderari eman behar zaio erantzuna. Herrian erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztiek parte-hartu ahal izango dute iritzi-bilketan.

Aurrez aurrekoa, berriz, datorren astean izango da. Urriaren 16tik 22ra, udaletxeko Ata-

ria herritarren arretarako gunean eta Bastero Kulturgunean botoa emateko aukera izango da. Goizez edo arratsaldez eman gongo dute arreta-zerbitzua.

Urriak 16-22, aurrez aurre botoa emateko aukera

- 11:00-14:00 Ataria, Udaletxea.
- 18:00-20:00 Bastero.

Bestalde, urriaren 18an, larunbatarekin, 11:00etatik 14:00etara iritzia emateko aukera izango da.

Andoni Alvarez alkateak herritarrei gonbidapena luzatu diete erakusketak konpataribora ager daitezen eta iritzia eman dezaten. "Azken fasera iritsi gara dagoeneko. Uda aurretik informazioa banatzen egon ondoren, hitzaldiak, informazio puntu ibiltariak, esku-orriak eta erakusketak jarri ditugu martxan, eta orain herritarren iritzia zein den jakiteko garaia iritsi da. Horregatik, andoaindar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi ditugu".

Martxa

Errespetatu Andoain plataformak elkarretaratzek antolatu eta informazio-mahaia jarri ditu irailean. Datorren larunbaterako martxa antolatu dute.

Martxa, larunbat goizean

"Lazoak arazoak ez dituela konpontzen aldarrikatzen jarraituko dugu. Lazoak arazoak betikotzen ditu, ez ditu konpontzen! Andoain itotzen du! Horregatik, urriaren 11n goizeko 11:00etan egingo den martxan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu andoaindarrak. Gure etorkizuna jokoan dagoelako, haur, gazte eta helduok Karrikatik Mimendira martxan joango gara. Zatoz!".



Peio Lozano izan da lehen hizlaria. AIURRI

Peio Lozano urnietarra izan da lehen hizlaria

N1 eta A15 errepideen etorkizuneko lotunea dela-eta, Andoaingo Udalak hitzaldi-sorta antolatu du

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Lau hizlarietako lehena EHuko irakaslea eta Ekopol Iraunkortasunerako trantsizio ekosoziala aztergai duen ikerketa-taldeko kidea da. Universidad Complutense de Madrideko analitikabaliabideak eta EAEko kartografia erabili zuen saihesbidea eta konbibentzia delako egitasmoen arteko alderaketa egiteko. Ikuspegi geologikoa, airea, lurzorua, ura, ingurune biotikoa, inpaktu bisuala... alor horietan sakondu zuen. Puntuaketa bat egin zuen, kontziente izanik boto zebaketa hutsak ez duela aukera bakarra izan behar. Osasun edo ingurumen ikuspegietan, esaterako, zenbaketa haztatua edo ponderatua egin zitekeela ulergarria zitzaion. Hitzaldian, tarteka, ikusleek egindako galderak eta ekarpenak entzun eta erantzun zituen.

Hitzaldi-sortak datozen egunotan izango du jarraipena.

Urriak 9, osteguna

18:30, Bastero Kulturgunea

"Errepidearen kutsaduraren eragina osasunean". Hizlaria: Aitana Lertxundi, EHuko medikuntza eta erizaintza fakultateko irakasle eta ikerlaria.

Urriak 14, asteartea

18:30, Bastero Kulturgunea

"Alternatiba ezberdinen itzule-ra ekonomikoaren azterketa". Jose Maria Abad, abokatu urbanista.

Urriak 22, asteazkena

18:30, Bastero Kulturgunea

"Hirigintza ikuspegia". Hizlaria: Ander Gortazar, arkitektoa, hirigintza, lurralde antolamenduan, mugikortasunean eta Geografia Informazio Sistemetan aditua.



Informazio-panelak ikusgai daude Basteroko sarreran. AIURRI



Andoaingo Gau Beltza, artxiboko irudian. AIURRI

Gau Beltza, hilaren 31n

Aurten, ostiralarekin, Gau Beltzaren laugarren edizioa antolatuko dute Andoaingo euskaltzaleek. Arratsaldean hasita, hainbat hitzordu izango da Goikoplazan, Plaza Morean, Kale Nagusian eta Etxeberrieta plazan

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko urteetan bezala, jendetza espero da aurtengo Gau Beltzan. Datuak adierazgarriak dira: 500 lagunentzat txokolate-beroa prestatzen da, 300 talo jateko txartelak airean agortzen dira eta beldurraren pasabidean, kalejiran nahiz zezen-suzkoan makina bat lagunek parte hartzen dute.

Egitaraua, aurreko edizioen bidetik

Arratsaldea motzagoa da, ordua aldatzen denetik. Beraz, eguzkia agurtzen hasita, txokolate-beroa

AURTEN ERE GOIKOPLAZAN HASI ETA ETXEBERRIETA PLAZAN AMAITUKO DA GAU BELTZA

banatzen da Goikoplazan. Segidan, Urki dantza-taldekoek emana dia egin ohi dute udaletxearen kanpoaldean. Jaiaren jatorria gogorarazten digu aktore-taldeak eta, hura amaituta, Akerrak Okerrak kalejirari hasiera emango zaio. Goikoplazan hasi eta Etxeberrieta plazan amaituko da. Bidean, Kale Nagusian, Beldurraren pasabideaz gozatzeko aukera izango dute haur eta gaztetxoek.

Etxeberrieta plazan emango zaio amaiera ospakizunari. Taloaz gozatzeko eta zezen-suzkoaren aurrean korrika aritzeko aukera izango da.

Datozen egunetan, antolatzaileek ordutegien xehetasun gehiago emango dituzte.

Auzolana, jaiaren oinarrian
Aiurri eta Manuel Larramendi Kultur Bazkuna dira jaiaren

antolatzaileak, Andoaingo Udalen eta Salkinen babesarekin. Baina askotxo dira jaiaren murgiltzen diren eragileak: Elkarte gastronomikoak (Kotoi, Iruberrri, Santa Krutz Peña eta Batzokia), merkatalguneak (Keinu, Urrats eta Salkin) eta kultur-eragileak (Lebiton konpartsa, Maizorri eta Urki). Bidelagunak, gainera, askotxo dira: aurkezle, aktore, zaindari, antolatzaile, sukaldari eta zerbitzari lanetan dabilzan hamaika euskaltzale.

Zapiak, kapelak eta jantziak armairutik ateratzeko garaia heldu da.

TXOKOLATE-BEROA, GAZTAIN ERREAK, TALOA... UDAZKEN GIROKO JAKIAK IZANGO DIRA AUKERAN



GAU BELTZA 2025 AUZOLANERAKO DEIA



Zure haurren komunitatean parte hartu nahi al duzu? Zorteko zara, GAU BELTZAN duzu horretarako aukera!!



Ez daukazula denborarik? Lasai, lan zehatzak izango dira eta egun bakarrean: urriaren 31n.



Ez duzu haurra norekin utzi? Taldetxo bat elkartu eta hurrek gozatu dezakete guraso baten zaintzapean.



Ez duzu argi ze ekarpen egin dezakezun? Bide-segurtasuna, txokolate beroa banatzen, txartelen salmentan, taloak prestatzen... lan horietan aritzeko lagunak behar ditugu.



Ez duzu taldeko inor ezagutzen? Jende jatorra gara!



Eta, orduan, zer egin? Laguntza emateko prest bazaude, bikain! jar zaitetz antolatzaileekin harremanetan:
e-posta: andoain@aiurri.eus
whatsapp: 619 16 35 37



Ez daukazu aitzakiarik!



Markel Carmona eta etxeokak, elkarteko kideekin eta Hernaniko udal ordezkarekin. AIURRI



Xabier Salillas, aurreko ostiralean. AIURRI

Elkartasunez beteriko kirol-erronka

Gogor eutsi zioten, atsedetik hartu gabe, Xabier Salillas eta Abel Fernandez kirolariek Markel Carmona urnietarraren aldeko ekimenari: ostiralean, arratsaldeko 18:00etan eman zioten hasiera 24 orduko iraupena izan zuen erronkari

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Protagonismo berezia hartu du asteburu honetan Hernanin Aurrera Markelekin elkarteak: gaixotasun ultrarraroa daukan Markel Carmona urnietarraren aldeko hitzordu solidarioa izan zen, joan den ostiralean zein larunbatean Atsegindegi plazan. Xabier Salillas eta Abel Fernandez 24 orduz izan ziren kirol-jardunean, atsedetik hartu gabe: lehen hamabi orduetan, ergometroan aritu ziren, Hernaniko arraun-elkarteko kideak lagun. Hala, gainerako hamabiak zinta gainean egin zituzten, martxan, Denontzateko kideekin batera. Bien bitartean, kirol-jarduna samurtze aldera,

egitarau oparoa prestatu zuen Aurrera Markelekin elkarteak: musika, erraldoiak, herri-kirolak, bazkaria...

Ez da Xabier Salillasek Aurrera Markelentzat horrelako erronka bat egiten duen lehen aldia. Izan ere, 2022ko azaroan 48 orduko jarduna egin zuen: 24 ordu, bizikleta estatikoan eta 24 ordu korri egiteko zintaren gainean. Hala, gertukoa du elkarte Hernaniko kirolariek eta berezia egin zaio asteburuko hitzorduan parte hartzea: "Indar handia ematen du Markelen alde dela jakiteak, hor daudela, lagunak, familia..."

Martxan soberan ibilia bada ere, ergometroan dozena bat

orduz sekula egon gabekoa zen Salillas lehenago. Urtarriletik apirilera arte, gutxi gorabehera, egunean ordu erdiz aritu zen entrenatzen: "Arraunean aritzeko ez naiz askorik prestatu. Entrenatu, entrenatu dut, baina hamabi orduz aritzeko, ezinezkoa. Martxa egiten dut nik eta nire denboraldia daukat, nire lasterketak...". Nahiz eta intentsitate txikian aritu, ohitura ezaren aurrean, gorputzean minak agertzen hasi zitzaizkion Salillas, ergometroan orduak aurrera egin ahala: "Besoak eta ipurdia, gaizki. Abdominalak ere bai, baina normala da hori, gorputz-jarrerarengatik". Zer egin, bada, nekea gainera etor-

tzean? "Segi aurrera", esatea da gakoa hernaniarrarentzat.

Bada horrelako erronka bat egiteko gorputza bezain beste entrenatu behar den zerbait: burua. Psikologo baten laguntza jaso ohi du horretarako Salillasek; muturreko egoerei eusten ikasten du, horrela. "Neure onetik ateratzen nau, mugara eramaten nau: momentu batzuetan, jo egin nahi dut, negar egin, barre egin, besarkatu...". Gauza bera egiten du gorputzarekin entrenamenduetan: "Muturreko egoera guztiak bilatzen ditugu, ondoren, erronketan prest egon gaitezen".

Babes zabala jasota

Erronkaren lehen orduetan jende gutxi urreratu arren, babes zabala sentitu zuten kirolariek larunbatean: "Guregana etortzen zen jendea, galderak egitera", du gogoan Salillasek, "burua beste toki batean geneukan". Era berean, elkarteak antolatutako egitaraua ere lagungarria egin zitzaion, erronka eramangarriagoa izateko bidean. Gainera, uneoro izan zituzten lagun, erreleboka Hernaniko Arraun Elkarteko zein Denontzateko kideak, baita boluntarioak ere. Inportantea iruditzen zaio Salillas horrelako ekitaldietan konpainia eta "jasoa" sentitu zen 24 orduko jardunaren amaieran: "Oso polita izan zen. Normalean, bakarrik bukatzen ditut egiten ditudan erronkak, baina, oraingoan, ezberdina izan da".

Behin desafioa bukatuta, zer egin? Nola hartu atsedea? Suspertuta dago gorputza, eta kolpez gelditzea baino, "atseden aktiboa" egitea du nahiago Salillasek. Horregatik, igandean, etxeko sofan botata egoteaz gain, gimnasiora joateko tartea hartu zuen kirolariak, bizikletan ibiltzeko: "Niri, behintzat, ondo datorkit jarraitzea, beste intentsitate batekin, beste erritmo batean, mantsoago". Erronka solidarioa bat egin bitartean bururatzen zaio hurrengo bat egiteko ideia. Joan den aste-burukoa, esaterako, "Juneren hegoak" elkartearen aldeko ekimen batean otu zitzaion: zortzi ordu egin zituen igerian, beste zortzi bizikletan eta beste zortzi korrika. "Orain ere badaukat beste bat buruan", dio Salillasek, "pentsatu dut, jada, norentzat egin, baina, oraindik, batarekin eta bestearekin hitz egin behar dut". Elkartasun keinuak nekearen zama arindu dio asteburu honetan Salillas. Oso eskertuta dago Aurrera Markelekin elkartearekin, "gehien gustatzen zaiona" egiten uzten diotelako: "Dirua izango banu, emango nieke, baina ez daukadanez, nire gauzarik preziatuena, bi hankak, eskaintzen dizkiet".

"MUTURREKO EGOERAK BILATZEN DITUGU, ERRONKETAN PREST EGOTEKO"

XABIER SALILLAS



Maren Telletxea eta Dani Fernandez, Irlandan lortutako sariekin. AIURRI



Europako kayak surf txapelketa ofiziala irabazi duen Euskal Herriko selekzioa. EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNA

Europako txapelaldunak

Hamalau urteko Maren Telletxea Paz eta hemezortzi urteko Dani Fernandez Diaz gazteek urrezko dominak lortu dituzte Europako Kayak Surfeko Europako txapelketan, Irlandan, Euskal Selekzioarekin. Txapelketa ofiziala izan da

Xabier Lasa ANDOAIN

Bi gazte andoainarrak Euskal Herriko selekzioarekin aritu ziren lehian, Sligoko kostaldean (Hego Irlandako Errepublikako konderria) irailaren lehen egunetan jokatu zen Europako txapelketan.

Maren Telletxea bi mailatan lehiatu zen; senior mailan, urrezkoa eskuratu zuen luzea deituriko modalitatean, eta laugarren motza izenekoan. Junior mailan, berriz, lehenengoa postua lortu zuen bai luzean eta bai motzean.

Dani Fernandezek, junior mailan, urrezko domina eskuratu zuen kayak motza modalitatean, eta zilarra kayak luzean.

Euskal Herriak Europako (Irlanda, Ingalaterra, Frantzia, Eskozia, Man Irlak, Danimarka eta Espainiako selekzioekin eta munduko beste hiru herrialde gonbidatuekin (Australia, Hego

Afrika eta Argentina) neurtu zituen indarrak.

Horrela, kayak surflari guztiek lortutako emaitzak kontuan hartuta, batu ondoren, selekzioen txapelketari dagokionez, Euskal Herria lehena izan zen (18 puntu), Frantzia, bigarren, eta Ingalaterra, hirugarren.

Euskaldunen erakustaldi ikusgarriak

Telletxea eta Fernandez Donostiako Erreal Klub Nautikoko arraunlariak dira. Hamasei arraunlarik osatu zuten Euskal Selekzioa, eta Donostiako taldekideak izan ziren horietako gehien-gehienak. Denek ikuskitzen polita eskaini zuten Sligoko kostaldean egin zen txapelketan. Egundoko trebezia erakutsi zuten tarteka bi metroko altuera hartzen duen Easkey Left ize-neko olatu famatuan.

Guztira, hamaika eguneko abentura izan zen txapelketan parte hartzea Euskal Herriko kayak-surflarientzat. Hiru bat egun igaro zituzten Bilbo-Ross-lare joan-etorria egiten duen ferryan; lau egun iraun zuen txapelketak, eta gainerako egunetan, txapelketako prestakuntzari heldu zioten. Irlandako kostaldeko paraje zoragarrietan turismoa egiteko betarik gabe ibili ziren, erabat kontzentratuta lehiarekin.

Maren Telletxearentzat Espainiako estatutik kanpoko lehenbiziko txapelketa izan da Irlandakoa. Dani Fernandezek eskarmentu handiagoa du nazioartean, lehen ere lehiatu izan baita nazioarteko txapelketetan. Hain zuzen, Europako txapelketa irabazi zuen Galizan 2023an, eta mundukoa Mar de Platan (Argentina), iaz.

Kayak surflari porrokatuak

Piraguismoaren eta surfaren arteko nahasketa da Kayak Surfa, eta itsas olatuetan praktikatzen da. Kayak edo kanoan sartuta, olatu bizieta murgildu eta txiribuek eta mugimendu ikusgarriak egin behar izan dituzte kayak surfelariak. Surfaren antzeko arauak ditu kirol horrek, eta olatuak hartu eta horietan irrist egiteko abiltasuna, abiadura, mugimenduen ikusgarritasuna... dira epaileek kontuan hartzen dituzten zenbait ezaugarri.

Ez da batere ezaguna Kayak Surf kirola gurean, eta Telletxeak eta Fernandezek aitortzen dute makina bat alditan azaldu behar izan diotela jendeari zeintzuk diren bere ezaugarriak. Era horretan, ez dute oihartzun handirik eduki Europa mailan lortu dituzten garaipenak, nahiz eta egundoko meritukoa izan egin dutena.

Oihartzunak oihartzun, pozez ezin kabiturik daude bi gazteak, gogoko duten kirola praktikatzen dutelako, eta gainera, nazioartean dominak eskuratzeko aukera ematen dielako.

Biek adierazi dutenez, kirol ugaritan jardundakoak dira

TELLETXEA ETA FERNANDEZ DONOSTIAKO ERREAL KLUB NAUTIKOKO ARRAUNLARIAK DIRA

umetan, baina behin Kayak Surfa probatu zutenetik, txora-txora eginda dabilta harrezkero. “Izugarri gozaten dugu itsasoan, olatuekin”, dio Telletxeak.

Asteazkenetan, ostiraletan, larunbatean eta igandetan; asteburuak ere horretara jarrita bizi direla, alegia. “Ez zaigu batere nekagarria egiten diziplina hori, gogotsu joaten gara”, esan dute biek azkar askoan.

Kayak baten barruan olatuekin jolasean edo borrokan dabiltean, zer sentitzen duten galde-tuz gero, denetik erantzun dute. “Nekagarria egiten da batzuetan, eta izatez, hamar kilo galdu ditut nik azken urtetan, baina aldi berean, ohartuta nago indarra, diziplina, kontzentrazioa eta itsasoan murgiltzeko erabateko konfiantza eman didala kayak surfak”, erantzun du Fernandezek. Telletxeak emozioekin lotu du kirola: “Olatuen artean ibiltzea estres puntua eragin dezakeela ematen du, baina niretzat askatasunarekin dauka zerikusia gehiago; aske sentiarazten nau, erabat ahaztu egiten zaizkit egunerokotasuneko gorabeherak”.

Azkenik, kayak surfa proba dezaten animatzen dituzte gazteak: “Ikastaro bat egitea komeni da lehenbizi; ikusi dezatela beren nahietara egokitzen den kirola den ala ez, eta gero geroakoak”.



Euskalduna. AIURRI

Liderraren zelaian dute hurrengo hitzordua

Oiartzun taldearen zelaian ariko da Euskalduna, Erregional ohorezko mailaren 5. jardunaldian

Erredakzioa ANDOAIN

Gorengo mailatik Ohorezko mailara jauzi egitea albiste ona izan zen Euskaldunarentzat. Senior mailako gizonen aspalduko ametsa bete baitzen, udaberrian. Koska bat gora igo-tzean, ordea, zailtasuna areagotu egiten da. Gaztañagak zuzentzen duen taldea maila berrira egokitzen ari da eta datorren larunbatean liderraren zelaian jokatuko du. Arratsaldeko 17:45etan hasiko da partida.

Lau jardunaldi igaro dira

Abiatu da denboraldia eta Euskaldunak bi berdinketa eta bi porrot lortu ditu lehen lau jardunaldietan. Oiartzun taldeak, aldiz, hiru garaipen eta berdinketa bakarra. Liderrak gol gutxi egin eta jaso ditu denboraldi honetan: aldekoak, 7; aurkakoak, 3. Beraz, sartutako golei zukua ateratzen diete.

Sailkapenaren atzealdean, gaurkoz, egoera beretsuan dira Amaiak Bat, Urola, Urki, Zumaiako, Mutriko, Euskalduna eta Deustu. Punturik lortu ez duen talde bakarra da Deustukoa.

Bosgarrenean ez bada, seigarrenean iritsi daiteke denboraldiko lehen garaipena. Urriaren 19ko asteburuan Euskaldunak Urki jasoko du Ubitarten.



Urnieta Artola Harategia. UKE

Artalekun garaipena lortu zuen Urnietako lehen taldeak

Lehen jardunaldia 23ko berdinketarekin amaitu zen, Soraluze BKE taldearen aurka

Erredakzioa URNIETA

1. Lurrealdeko senior gizonen mailan, Urnieta Artola Harategia taldeak ligari ondo ekin dio. Soraluzeren aurka 23ko berdinketa lortu ostean, aurreko asteburuan garaipena lortu zuten Artalekun (27-30). Irungoen aurka partida zaila zen, gogoan baitzituen iaz izandako zailtasunak.

Hasiera-hasieratik partida serioa egin zuten urnietarrek, defentsan intentsitatez arituz eta erasoan asmatuz. Lehen abantailak lortu zituzten, baina ez zituzten atsedenaldira arte mantendu ahal izan, irundarrek markagailua berdindu baitzuten (13-13). Bigarren zatia hasieran UKEkoak izan ziren berririo ere alde txikia ireki zutenak markagailuan. Defentsak ia ez ziren existitzen eta bi taldeek erraz sartzen zituzten golak. Urnietarrek, halere, 3-4 goletako abantaila mantentzea lortu zuten. Azken txanpan, Txingudikoek ez zituzten urnietarrak larregi estutu, eta garaipena etxera eramane zuten.

Asteburu honetan Aloña Mendiren aurka ariko dira, Urnietako udal kiroldegian. Ligan porrotik ezagutzen ez duten bi taldeen arteko norgehiagoka izango da.



Gross jaialdiaren aurkezpena. AIURRI

Garagardoa, musika eta erremontea, Galarretan

Partida azkarrak, Gross etxeko garagardoa eta musika, larunbat honetako osagaiak

Erredakzioa ESKUALDEA

Oriamendi erremontea biziberritzeko enpresak jarrera dinamikoa erakutsi du azken urteotan. Larunbat honetan Gross erremonte jaialdiaren lehen edizioa egingo dute. Antolatzaileen esanetan, "larunbatekoak erremontea bizitzeko eta ulertzeko modu berri bat ekarriko du. Jaialdi berezia izango da, erremontez harago joango dena".

Ospakizunaren osagai nagusiak

Erremonteko txapelketa azkarra, maila handiko partidekin; garagardo azoka, lau garagardotegi desberdinekin; musika eta gastronomia, food truck-ak eta DJak.

Ganbara saski taldeak ekin dio denboraldiari

Junior mailan, gutxigatik, egin zion ihes garaipena Ganbara Representaciones Justino taldeari. Interrek irabazi zuen (48-51). Kadete mailakoek, berriz, Oiarsoren kantxan galdu zuten (60-46).

Larunbatean, bi partida Allurralden: infantil mailako mutitak (09:00) eta kadete mailako mutilak (10:30).



EUSKALDUNA

Omenaldia, ligako lehen partidaren

Areto futbola ere martxan da eta aurreko asteburuan lehen partida jokatuko duen Euskaldunak. Partidari ekin aurretik, klubak omenaldia egin zien Asier Ceballos, Iker Abadia eta Alvaro Gil jokalariei. Klubak mezua zabaldu zuen sare sozialetan: "Urte luzez klubari lotuta egon ondoren, ondo merezitako aitortza jaso zuten. Mila esker hiruroi!"



EUSKAL FEDERAZIOA

Euskadi-Palestina, azaroan

Euskal Selekzioak eta Palestinako selekzioak azaroaren 15ean, San Mamesen jokatuko dute. Izaera solidarioa izango du partidak. Ekimena Gernikan aurkeztu zuten eta bertan izan ziren Iker Goñi Euskadiko Futbol Federazioko presidentea, Jibril Rajoub Palestinako Futbol Federazioko presidentea, Susan Shalabi presidenteordea eta Yaser Hamed Palestinako selekzioko jokalaria.



Kirol-emaizak, unean bertan, Aiurri.eus gunean

Denboraldi honetan ere, Andoaingo eta Urnietako kirol taldeen emaitzak, sailkapenak eta ordutegian jarraitu ahal izango dira Aiurri.eus gunean. TOKIKOMekin lankidetzan egin da garapena

Erredakzioa ANDOAIN
Eskubaloia, saskibaloia eta futbola taldeko kirol jardueren jarraipen zehatza egin daiteke Aiurri.eus webgunean, Kirolak atalean. Taldeak, zehazki, honako hauek dira: Euskalduna futbol taldea, Urniet KE futbol eta eskubaloia taldeak, Leizaran eskubaloia taldea eta Andoaingo Ganbara eta Zurrut saskibaloia taldeak.

Gipuzkoako lehiaketei dago-kionez, eguneraketa unean uneko da. Hurrengo asteetan Euskal Ligan ari diren eskubaloia taldeen jarraipena eskaini ahal izateko lanean ari dira Aiurri eta TOKIKOM.



Aiurri.eus gunean Kirolak atalean aurki daitezke informazio guztia. AIURRI

Behobiara, autobusez

Aurten ere, Aurrera Markelekin elkarteari Behobia-Donostiarako autobus-zerbitzua antolatzen du Urnietatik.

Prezioa: 8 euro.

Izen-emateak:

- Iñaki: 600 201 406
- Vicen: 629 524 00

Ordutegia:

- 07:45 HK10 hotela
- 08:15 Guria-Kiroldegi parean.



AIURRI



Euskalduna. AIURRI

Hirugarren garaipena jarraian lortu nahi dute

Erregional gorengo mailako hirugarren jardunaldia jokatu da asteburu honetan

Erredakzioa ANDOAIN
Erregional gorengo mailako bigarren multzoan jokatu ari dira Euskalduna eta Urniet. Maila horretan debuta egin du Andoaingo taldeak eta hasiera ezin hobea izan da: bitik bi garaipen lortu dituzte. Azkenik, aurreko asteburuan, Usurbilen (0-2). Larunbat honetan Ubaitarten ariko dira Antigua Luberriren aurka (16:45).

Urniet, lehen garaipenaren bila
Aurreko asteburuan ligako lehen puntua lortu zuten etxean, Santo Tomasen aurkako partidaren (2-2). Igande honetan Martutenen ariko dira (17:40).



Leizaran, artxiboko irudian. AIURRI

Euskal Ligan debuta egin du Leizaran Ernio Inmobiliariak

Aurreko asteburuan ekin zioten denboraldiari, Allurralden. 21-31 galdu zuten Ereintzaren aurka

Erredakzioa ANDOAIN
Euskal Ligan lehiatzea zeinen zaila den badakite andoaindarrek. Aurten ere erronka zaila dute baina, era berean, ikasgai bikaina izango da. Aurrekoan Ereintza taldea hartu zuten etxean, ligako lehen jardunaldian. Emaitzari erreparatuta, aurkariak erraz gailendu ziren. Larunbatean Eibarren jokatu dute ligako bigarren (16:45).

Debuta, larunbatean
Kukullaga Etxeberri taldearen kantxan ariko da Leizaran Lanbroa taberna, larunbat honetan (17:30). Ligako lehen jardunaldia izango da.

URRIAK II LARUNBATA

TXAPELKETA 16:00 - 20:30

GARAGARDO FESTA 16:00 - 00:00

ERREMONTE TXAPELKETA

GROSS

GARAGARDO FESTA

DJ-AK

FOOD TRUCK-AK

HAMAIIKA GARAGARDO

ORIA MENDI

AIURRI

TXAPELKETAREN HIKOTEAK

JABALERA // BARRENETXEA IV

ALDABE // JUANENEA

SEGUROLA // LARRAÑAGA

EZKURRA II // AZPIROZ

MEZA

PAGOIA

BAGA BIGA

PAKTOBIA

SARRERAK

URRIAK II

GALARRETA JAI ALAI

HERNANI

GROSS BEER

GROSS

HITZORDUAK

ASTEAREN EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

JAIK

URNIETA Xoxoka

Egitaraua, 6. orrialdean.
Azken eguna: Urriak 12.

AISIALDIA

ANDOAIN Udal Ludoteka berria
Belabi kaleko zerbitzu berria
urriaren 14an jarriko dute martxan.
Izen-ematea, epea: Urriak 10.
E-posta: ludoteka@andoain.eus.

ANDOAIN Parketarrak

Jolasaren bitartez eta aisialdian
euskararen erabilera bultzatu nahi
duen ekimena. Datorren astean
hasita: 3-5 urte artekoentzat,
17:15etan. 6-9 urtekoentzat, berriz,
18:15etan.
Asteartero, Goikoplazan.
Asteazkenero, Zumea plazan.
Urriak 14-29.

INFORMAZIOA

ANDOAIN Informazio-gunea

Euskal Herriko Torturatuen Sarearen
ekimena.
Urriak 16, 23 eta 30.
18:00, Bastero Kulturunea.



Musika emanaldia, ostiral honetan, Bastero Kulturunean. AIURRI

ANDOAIN Bastero Kafe, zuzeneko musika

JAC Electric taldea bertsioko akustikoan ariko da. Musikariak: Iban Larrebourg, perkusioa; Louise Tossut, baxua eta kora; Urbil Artola, dobroa eta kora; JAC, gitara eta ahotsa.
Urriak 10, ostirala. 19:30, Bastero Kulturunea.

ERAKUSKETA

ANDOAIN Rakel Ubago

"Continuo-discontinuo. Una geometría".
Azaroaren 15a bitarte.
Bastero Kulturunea.

ANTZERKIA

URNIETA Gure kanoa

Abba, Senegaleko arrantzaile familia
bateko haur ausartaren istorioa.
Urriak 19, igandea.
19:00, Sarobe.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

La sospecha de Sofia

Urriak 11,
larunbata. 19:30.
Urriak 12, igandea.
19:30.

Urriak 13., astl.
17:00, 19:30.
El colegio de los animales mágicos 3
Urriak 11,
larunbata. 17:00.
Urriak 12, igandea.
17:00.



SINOPSISIA

La sospecha de Sofia

Zuzendaria: Imanol Uribe. **Aktoreak:** Alex Gonzalez, Aura Garrido, Zoe Stein, Irina Bravo, Yaiza Guimare. **Herrialdea:** Espainia (2025). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Thrillerra, Intriga. **Iraupena:** 100 m.



Imanol Uriberen berriena

Sofia eta Danielen bizitza etorkizun handikoa eta zoriontsua da, harik eta Danielek Gerra Hotzean murgilduta dagoen Ekialdeko Berlinera ama biologikoa ezagutzera joateko gonbidapen misteriozkoa jasotzen duen arte. Berak jakin gabe, gonbidapen hori onartzea bere bizitzako akatsik handiena izango da, KGBren plan sekretuaren funtsezko pieza bihurtuko baita Espainia frankistan bere zentro operatiboa ezartzeko, non bere anaia bikiak, Klaussek, funtsezko papera jokatu duen, nortasuna, familia eta bizitza osoa usurpatuz. Une horretatik aurrera, Sofia susmo etengabea biziko da.

Kanpandorreko erlojua konpontzeko lanei ekin die

Urte luzez matxuratuta egon den erlojua piezaz pieza desmuntatu eta Salestarren tailerrera eraman zuten



Ordulariaren piezak. AIURRI

Xabier Lasa URNIETA

Lanketa horretan jardun zuten aintzinako erlojuetan adituak diren Aitor Villa, Juan Mari Elosua eta Xabier Alvarez, eta, Salestarrak ikastetxeko Julen Oscoz, Gorka Azkarate eta Jesus Urain irakasleak eta Enaitz Jauregi, Ekhi Usarralde eta Aimar Zubeldia ikasleak.

Ikastetxean mantentze lanak egingo dituzte (pieza guztiak garbitu, doitze lanak egin, berriro muntatu...). Zenbait hila-beteetan luzatuko den eginkizu-



Aintzinako erlojuetan adituak diren Aitor Villa, Juan Mari Elosua eta Xabier Alvarez, Salestarrak ikastetxeko Julen Oscoz irakaslea eta Enaitz Jauregi, Ekhi Usarralde eta Aimar Zubeldia ikasleak, eta Mikel Ormazabal erretorea. AIURRI

na hartu dute irakasle eta ikasleek, eta bien bitartean, lehen aipatutako erloju konpontzaileek

orduak markatuko dituen behin behineko erlojua ipiniko dute kanpandorrean.

Odol-emileen hitzordua Andoain, urriaren 13an

Andoaindarrek odola emateko txanda izango dute, herriko osasun-etxean, arratsaldeko 16:30etik iluntzeko 20:15ak arte. Egunean bertan, goizez, hitzordua hartu beharko da, 943 007 884 telefono zenbakira deituta. Era berean, Gotanta.eus webgunaren bidez ere izena eman daiteke. Deitzaileek azken alditan nabarmendu dutenez, odola ematea beharrezkoa da, erreserbak jaisten ari baitira.

Urnieta, azaroan

Urnietako hitzordua hilabete barru izango da, zehazki, azaroaren 17an. Ohi bezala, Gaztelekuan, Plazido Muxika plazan.

KOMUNITATEA

BETERRI-BURUNTZA GARAPEN AGENTZIA BETERRI-BURUNTZA

Azken astea dute Beterri-Buruntzako ekintzaileek 2.000 euroko dirulaguntza eskatzeko

Beterri-Buruntzako herritarrek enpresa berri bat sortu edo martxan jarri nahi badute, oraindik aukera dute Lanbidek abiarazitako “Lanbide Ekintzaile” programan izena emateko. Ekimenak hiru hilabeteko iraupena izango du, eta parte-hartzaileek taldeko prestakuntza-saioak zein banakako tutoretzak izango dituzte, beren enpresa-ideiak garatzeko. Eskaera egiteko azken eguna urriaren 13a da.

Programan parte hartzen duten ekintzaileek dirulaguntza jasoko dute prozesua aurrera eraman bitartean: 2.000 euroko laguntza orokorra, gehi % 15eko igoera 18-30 urte bitarteko gazteentzat eta % 15eko igoera emakumeentzat. Hasieran jasotzen da



GARAPEN AGENTZIA

laguntzaren % 60, 1.200 euro, eta ideia martxan jartzen bada, baita gainerako % 40 ere, 800 euro.

Izena emateko, eskatzaileek zenbait baldintza bete behar dituzte: langabea izatea eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea, eskualdean erroldatuta egotea (Hernani, Andoain, Usurbil, Urnieta, Astigarraga edo Lasarte-Oria) eta aurreko urteetan antzeko laguntzarik

jaso ez izana, besteak beste. Gainera, hiru hilabete eskaini beharko dizkiote eksklusiboki beraien negozio-idea aztertzeari, martxan jartzen saiatzeko.

Parte hartzeko, ekintzaileek urriaren 13a baino lehen aurkeztu beharko dute beren enpresa-idea Mankomunitatean, ekintzailatza@beterriburuntza.eus helbidera idatzita.



Ludoteka berria. AIURRI

Andoaingo Ludoteka berria, urriaren 14an zabalik

Belabi kaleko 7. zenbakian egoitza du Andoaingo Ludoteka berriak. Irailaren 30ean izena emateko epea abiatu zuten eta hilaren 14tik aurrera zabalik izango da. Eskaintza zabala da: jolasak, irakurketa txokoa, futbolina...

Ordutegia:
17:00-20:00 Asteartea-ostirala.
10:00-13:00 Larunbat goiza.
16:00-19:00 Larunbat arratsaldea.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak!
Urriaren 13an, Ainhoak 32 urte beteko ditu. Eskerrik asko zaren bezala zarelako. Zorionak!!! Etxekoak.



ANDOAIN
Zorionak!
Urriaren 11n urteak beteko ditu Marivi Garcia Rodriguezek. Etxeko eta familia guztiaren partez muxu erraldoi pila! Askok maite zaitugu!



ANDOAIN
Zorionak!
Urriaren 16an 7 urte beteko ditu etxeko bihurriak... Bere ahizpa eta etxeko partetik txokolatezko muxu handi bat! Ikaragarri maite zaitugu!

- AIURRIN ARGITARATU NAHI?**
- **Aiurri.eus** Fitxa bete "Zorion agurrak" atalean.
 - **diseinua@aiurri.eus** mezua bidali -epostaz.
 - **Arantzibia 4-5, behe**a etor zaitez bulegora, Andoainera.
 - **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37

Albia beilatokia errausketa-labea Rekalde Berri

**Bestelako agurra posible da.
Utzi zure emozioak sentitzen.
Gu gainerako guztiaz arduratzen gara.**

Kapera eta agur-gela
Kafeteria eta Catering gourmet
Murgiltze gela
Aparkaleku pribatua
Arreta emozional jarraitua
Espazio intimoak, dotoreak eta atseginak

www.albia.es 900 24 24 20

GAU BELTZA

ANDOAIN

2025

URRIAK 31,
OSTIRALA



AIURRI



MARRVENDI



ANDOAINGO UDALA



bastero
KULTURGUNA



SALKIN
bertatik bertara



euskaltzateen
topagunea

ANDOAINGO
BATZOKIA



irunberri
ELKARTEA
andoain

PENA SANTA KRUTZ
ELKARTEA
1956



URKI
DANTZA TALDEA

KEINU



LEBITON
BURUANEN ETA ERBALOEN
KOMPANIA
ANDOAIN



Urats
inprimategia

Eta zuek?
Zer
ospatzen
duzue?

